Sin./Fdo.: JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ - 2020-01-13
OGASUN ETA FINANTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren ____/2020 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 21ekoa, kartografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoaren aplikazioa erabaki eta prezio horren araudia garatzen duena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia ____/2020, de 21 de enero, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la prestación de servicios cartográficos.

Bizkaiko Foru Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzko 1990eko ekainaren 27ko 4/1990 Foru Arauaren bidez, Foru Aldundiak bere eskumeneko zerbitzuengatik eta jarduerengatik ordainarazten dituen prezio publikoen araubide juridikoa arautu zen.

La Norma Foral 4/1990, de 27 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros Recursos Tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, regula el régimen jurídico de los precios públicos que la Diputación Foral exacciona por la prestación de servicios o realización de actividades de su competencia.

Gaur egun, kartografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak otsailaren 15eko 15/2000 Foru Dekretuak arautzen ditu —haren bidez, kartografia zerbitzuak emateagatiko prezio publikoen ezarpena erabaki eta prezio publiko hori araupetzen da—. Ondoren, irailaren 21eko 160/2004 eta martxoaren 31ko 42/2009 foru-dekretuek aldatu dute 15/2000 Foru Dekretua.

En la actualidad la regulación de los precios públicos por la prestación de servicios cartográficos se contiene en el Decreto Foral 15/2000, de 15 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la prestación de servicios cartográficos, que ha sido sucesivamente modificado por los Decretos Forales 160/2004, de 21 de septiembre y 42/2009, de 31 de marzo.

Aztertze- eta hausnartze-prozesu baten ondoren, beharrezkotzat jotzen da testu bakarrean biltzea prezio publiko honen araudi guztia; beharrezko irizten zaio, orobat, berrikusi eta eguneratzeari prezioaren zenbatekoak (prezioaren jarraipenaren barruan), araudi-erreferentziak eta hizkuntza bera (genero-ikuspegiarekin bat etortzeko).

Tras un proceso de análisis y reflexión, se considera necesario articular en un único texto toda la normativa reguladora de este precio público, revisando y actualizando las cuantías del mismo dentro de su continuidad, así como las referencias normativas y el lenguaje de acuerdo con la perspectiva de género.

Goian adierazitakoagatik, eta Bizkaiko Foru

Por lo expuesto, y en uso de la habilitación normativa

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

Administrazioaren Tasa, Prezio Publiko eta Bestelako Tributu Baliabideei buruzko ekainaren 26ko 4/1990 Foru Arauaren 28. artikuluan ezarritako ahalmena erabilita (non ezartzen den prezio publikoak foru-dekretuz ezarri edo aldatuko direla, non eta foru-arau berezi batean kontrakoa xedatzen ez den), foru-dekretu honen bidez, kartografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoaren aplikazioa erabaki eta prezio horren araudia garatzen da.

contenida en el artículo 28 de la Norma Foral 4/1990, de 26 de junio, de Tasas, Precios Públicos y otros Recursos Tributarios de la Administración Foral de Bizkaia, que establece que la fijación o modificación de la cuantía de los precios públicos se realizará por Decreto Foral, salvo que una Norma Foral especial disponga lo contrario, mediante el presente Decreto Foral se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la prestación de servicios cartográficos.

Foru-dekretu hau izapidetzeko, kontrol ekonomikoari buruzko txostena eman da eta kontuan hartu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 4ko 4/2018 Foru Arauak ezartzen duena.

Para la tramitación de este Decreto Foral se ha emitido el correspondiente informe de control económico y se ha observado lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 2020ko urtarrilaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en su reunión del día 21 de enero de 2020,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

1.artikulua. *Xedea.*

Artículo 1. *Objeto.*

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egin eta editatzen duen

El presente Decreto Foral tiene por objeto establecer el precio público para la venta de la documentación

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

dokumentazio kartografikoaren salmentarako prezio publikoa ezartzea da foru-dekretu honen xedea.

cartográfica elaborada y editada por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak zabalkunde publikoko sare telematikoetan argitaratzen duen informazio kartografikoaren kasuan, berriz, ez da aplikatuko prezio publiko hau.

La obtención de la información cartográfica publicada por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial en redes telemáticas de difusión pública no será objeto de este precio público.

2.artikulua. *Ordaindu behar dutenak*

Artículo 2. *Obligadas al pago*.

Pertsona fisiko eta juridikoek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren 34.3 artikuluan aipatutako erakundeek ordaindu behar dute prezio publikoa, baldin eta haien alde Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak egin eta editatzen duen dokumentazio kartografikoaren salmenta egiten bada.

Quedan obligados al pago las personas físicas y jurídicas y las entidades a las que se refiere el artículo 34.3 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, a cuyo favor se realice la venta de la documentación cartográfica elaborada y editada por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.

3. artikulua. *Kobrantza*

Artículo 3. *Cobro*.

Prezio publikoa dokumentazio kartografikoa saltzen den unean eskatuko da.

El precio público se exigirá en el momento de la venta de la documentación cartográfica.

4. artikulua.- Salbuespenak.

Artículo 4. Exenciones.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeez gainera, lurralde-mailako gainerako toki-erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatua salbuetsita egongo dira prezio publiko hau ordaintzetik.

Además de las entidades que integran el sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia, estarán exentas del pago del presente precio público, las demás entidades locales territoriales, la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Estado.

5. artikulua.- Elementu kuantitatiboak

Artículo 5. Elementos cuantitativos.

Prezio publiko hau, BEZa barne, honako tarifa hauekin bat eskatuko da:

El precio público, IVA incluido, se exigirá conforme a las siguientes tarifas:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

1. Kartografia.

1. Cartografía.

| Eskala / Escala | Koloretako papera (€/alea) / Papel color (€/unidad) |
|---|---|
| 1:500 | 8,85 |
| 1:1.000 | 8,85 |
| 1:5.000 | 8,85 |
| Ortoargazkiak / Ortofotos | 8,70 |

2. Aurreko kartografia-serieen euskarri informatikoak.

2. Soportes informáticos de las series cartográficas anteriores.

- Kartografia-minuta

- Minuta cartográfica.

| Eskala / Escala | €/alea / €/unidad | €/CD |
|---|---|---|
| 1:500 | 3,45 | 1,00 |
| 1:1.000 | 3,45 | 1,00 |
| 1:5.000 | 3,45 | 1,00 |
| Ortoargazkiak / Ortofotos 1:5.000 | 3,45 | 1,00 |

- Konpilazioak

- Compilaciones.

| Eskala / Escala | €/alea / €/unidad |
|---|---|
| 1:500 | 6 |
| Ortoargazkiak / Ortofotos 1:5.000 | 10,00 |

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

3. Ortoargazkien eta hegaldi fotogrametrikoen aireko argazkien fotokopiak: 2,15 €/unitatea

3. Fotocopias de ortofotos y fotografías aéreas de los vuelos fotogramétricos: 2,15 €/unidad.

4. Argazki-kalitatea duten hegaldien irudi digitalizatuen kopiak:

-Argazki-kalitatea duten hegaldien irudi digitalizatuen kopiak, zuri-beltzean eta A4 tamainan: 0,50 €/unitatea

-Argazki-kalitatea duten hegaldien irudi digitalizatuen kopiak, koloretan eta A4 tamainan: 1,50 €/unitatea

4. Copias con calidad fotográfica de imágenes digitalizadas de vuelos:

- Copias con calidad fotográfica blanco y negro tamaño A4 de imágenes digitalizadas de vuelos: 0,50 €/unidad

- Copias con calidad fotográfica color tamaño A4 de imágenes digitalizadas de vuelos: 1,50 €/unidad

5. Mapen edizioa.

5. Ediciones de mapas.

| | Eskala / Escala | €/alea / €/unidad |
|---|---|---|
| Bizkaiko erliebedun mapa<br>Mapa relieve Bizkaia | 1:100.000 | 25,45 |

6.- Prezio publiko hau ordaintzera behartuta egon eta ikerketa-lanetarako dokumentazio kartografikoa behar duten unibertsitateko ikasleei 100eko 70eko hobaria aplikatuko zaie.

Kasu horietan, beharrezkoa izango da unibertsitate-proiektuaren arduradun den irakaslearen edo tutorearen egiaztagiria.

6.- La tarifa aplicable a las personas obligadas al pago del presente precio público que sean estudiantes universitarias que precisen la documentación cartográfica para trabajos de investigación será objeto de una bonificación del 70 por 100.

En estos casos se precisará de la acreditación correspondiente por medio de persona profesora o tutora responsable del proyecto universitario.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

*6. artikulua.- Kudeaketa eta likidazioa.*

*1. Prezio publiko hau Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak kudeatuko du.*

*2. Dokumentazio kartografikoa emateak berez ekarriko du aurretik prezio publikoa ordaindu beharra Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak horretarako baimendutako finantza-erakundeetan edo kontuetan.*

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Indargabetze normatiboa.*

Foru Dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko da kartografia-zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak otsailaren 15eko 15/2000 Foru Dekretuak arautzen dituena —haren bidez, kartografia zerbitzuak emateagatiko prezio publikoen ezarpena erabaki eta prezio publiko hori araupetzen da.

Azken xedapenetatik lehena. Arauak emateko gaikuntza

Baimena ematen zaie Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari eta Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuari foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

*Artículo 6.- Gestión y liquidación.*

*1. La gestión de este precio público corresponde al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.*

*2. La entrega efectiva de la documentación cartográfica exigirá el previo pago del precio público en las entidades financieras o cuentas autorizadas a tal fin por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia.*

Disposición derogatoria única. *Derogación normativa.*

A partir de la entrada en vigor de este Decreto Foral quedará derogado el Decreto Foral 15/2000, de 15 de febrero, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por la prestación de servicios cartográficos.

*Disposición final primera. Habilitación normativa.*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas y a al diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.

*Foru-dekretu honetan xedatu ez den guztian, batez ere zorra ordaintzeko moduari eta epeei dagokienez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan eta Zerga-bilketari buruzko araudian zehaztutakoa izango da aginduzko.*

*En todo lo no dispuesto en el presente Decreto Foral, en especial, en lo relativo al régimen de plazos y de pago de la deuda, se estará a lo previsto en la Norma Foral General Tributaria y en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia.*

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el “Boletín Oficial de Bizkaia”.

Bilbon, 2020ko urtarrilaren 21ean

En Bilbao, a 21 de enero de 2020.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua
El diputado foral de Hacienda y Finanzas
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia
El Diputado General
UNAI REMENTERIA MAIZ

Elektronikoki sinatutako dokumentua. AOUR-V6QG-K2M5-IY41 Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) AOUR-V6QG-K2M5-IY41 en www.ebizkaia.eus.